



Zereintza etxebizitza

Aldacrak: Zaintza
Ahozkoa: Sáintze / Séintze



43° 11' 36"

2° 36' 11"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Cereinza... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz que ocupa un área de doscientos setenta y dos estados, y se compone de una habitación y un piso..."
DJE, 1/23 or. (1873)

Patala (**Ikus Patala**) inguruan kokatzen den bizitza bakarreko baserri honen lehen aipuak Bizkaiko su-erroldean aurkitzen ditugu, *Cereniza* (1704), alegia. Gerora, dokumentu guztietan aldaera desberdinak agertzen ditu, eta bai *S* bai *C* hizkiez idatzita agertzen da: *Sereinza* (1825, PE/1825) eta *Sereinza* (1857, BUA, Viv) hasiera batean, eta gero, *Cereinza* (1865, DJE, 1/ 185. or.). XX. mendean eta ahozko formen eraginez, *Ceince* (1905, BUA, 40) eta *Ceintza* (1967, BUA, CE) formak topatzen ditugu. Auzotarren artean, ahozko transmisioan, ganaduarengatik eta gaztarengatik famatua izan den baserri hau *Sáintze* eta *Séintze* moduan ezagutzen da.

Bizitza bakarreko etxea dugu, auzoan dauden beste batzuen antzera eraikia eta XVII. mendean hedatu zen taxuan, *Sarrionaindia* (**Ikus Sarrionaindia**) eta *Sarriugarte* (**Ikus Sarriugarte**) kasu. Ondo bereizten dira ohiko harrizko bi gorputzak aldamenetan, harlanduz inguratutako leihoarekin beheko solairuan; hormetan ez bezala, horietarako harlangaitza aukeratu baitzuten, kalitate onekoa bada ere. Erdian, egurrezko dintela duen atarte bat dauka, harlanduzko janbek eta harrizko kantoiek eutsia eta harrizko oinarekin eta egurrezko zutikoarekin. Gaineko balkoi bakar batek batzen ditu bi leiho luzeak. Ganbaran, beste bao txiki bi ditu. Isurki biko teilatua dauka, hegal zabalekoa, eta beste baserri askotan legez, besoak ditu eusteko.

toponimia

Izen honen esangura iluna bada ere bilakaera oso ederra euskal onomastikaren eredia delako. Testigantza zaharrenean Zeneriza (Zerenitza irakurri behar dugu) moduan ageri da, baina 1745etik aurrera Zereintza da. Kontua da, behin baino gehiagotan esan dugun bezala, euskaraz antzina -n mota bi zeudela, gogorra eta leuna eta azken hori desagertu egin zen (Galdakao, Zestoa...). Baina desagertu arren zenbait kasutan bere hondarra gelditu da. Abadianotik Abadio sortu zen eta gero Abadiño. Billaro hiria Arenatza izeneko lekuan sortu zen, eta leku horri gaur egun Areantza esaten diote, Kasu honetan ere desagertu zen -n hori berragertu zen baina lekuz aldatuta Zeneritza > Zereintza.